


Abandoibarreko hotela, Bilbo, Ricardo Legorreta, 2004.
Irudia: Ibai Gandiaga



Postmodernitatea zertan datzan ez dago erabat argi. Hala ere, ontzat ematen da XX. mendeko Modernitatearen utopia berritzaileen amaieran oinarri duela. Garai historiko gisa, hortaz, Postmodernitatean bizi gara oraindik, zenbaitek dagoeneko aurreko mendeko gauza dela ziurtatu badu ere. Mugimendu artistiko gisa, berriz, zedarrituago egon zen –70eko eta 80ko hamarkaden bitartean–, eta arkitekturaren alorrean eduki zuen haren adierazpenik goiztiarrena, ohi ez bezala.

Garai bertsukoak izanagatik, 68ko Maiatzarekin gertatzen denaren aurkakoa jazotzen da arkitektura postmodernoarekin: Parisko iraultzan parte hartu ez zuen askok hurbiletik bizi izan zuela ziurtatzen badu ere, Postmodernitatean blai eginda ibilitako arkitekto ugarik mugimendu horrekin inolako erlaziorik eduki zuenik irmoki ukatu du. Zer dela eta? Egun batetik bestera, sorkuntza berriaren inposizio modernotik kontserbazionismo tradizionalaren ezarpen postmodernora iragan zelako ote?

Arkitekturaren alorrean eragin nabarmena eduki zuen Postmodernitateak, Italian, Suitzan, AEBetan, Herralde Katalanetan eta Euskal Herrian, batez ere. Hasiera batean, ekarpen kontzeptual arrunt interesgarri gisa; geroago, maiz itxurati bihurtutako estilo errepikakor moduan, ia-ia manierista. Izan ere, arkitektura postmodernoak aplikazio errazeko errezeta– eta prozedura–sorta eskaini zion proiektugileari: elementu historikoen aipamena, irmotasun tektonikoa, leiho erregularretan oinarritutako konposizio–sistema, monumentaltasuna zein anbiguotasuna, zenbaitetan ironia eta kultura herrikoia eragina...

Hirigintzaren esparruan, Mugimendu Modernoak ezabatutako ohiko kalearen protagonismoa berreskuratu zuen Postmodernitateak, bai eta hirietako alde zaharren arkitektura–balioa aintzat hartu ere. Behar–beharrezko ekarpena, hortaz, hainbat urtetako gehiegikeria funtzionalista moderno eta gero. Postmodernitateari esker, oro har –formalismo–gaindosiak gorabehera–, arkitektura–tipologiaren eta ondare historikoaren garrantziaz jabetu ginen. Ez da gutxi.

Arkitektura postmodernoaren argiak eta ilunak gainbegiratzeko garaia dugu. Azter ditzagun postmodernoak, gaur.

